

# Eraso atzerakoien aurrean. Feminismo sindikala. Eskubideen defentsan.

## 2025KO MARTXOA

Martxoaren 8an, emakume langileen borroka ospatzen dugun honetan, lehenik eta behin, gure begirada maila globalean jarri behar dugu. Gaur egun, emakumeen bizi-baldintzetan ondorio garrantzitsuak dituzten krisiei egin behar diegu aurre. Ingurumen-larrialdia, herritarren desplazamendu behartuak eta desberdintasunetan sakontzea edo gatazka armatuak areagotzea dira aurre egin beharreko erronketako batzuk.

Olatu atzerakoi bat bizi dugu, gorroto-diskurtso bat berreraikitzen ari dena egia-ostearen bidez edo, zuzenean, gezurrak zabalduz, emakumeen eskubideetan egindako aurrerapenak zalantzan jartzeko eta ahultzeko. Zerbitzu Publikoen Nazioarteko Planak (ISP) ohartarazi duenez, herrialde askotan, gobernuek uko egiten diete beren betebeharrei, finantzaketa murrizten eta oinarrizko zerbitzuak pribatizatzen ari dira, eta ongizateari eta gizarte-justiziari buruzko munduko jomugetan lan egiten duten nazioarteko erakunde eta akordioak bertan behera uzten ari dira.

Testuinguru horretan, sindikalista eta zerbitzu publikoetako langile garen aldetik, ahotsa altzatzen eta eskubideak defendatzen jarraitu behar dugu.

Zerbitzu publikoetatik, narratiba negatiboari aurre egin diezaiekegu eta guztion ongia defendatzeko eta mundu mailako giza eskubideak betetzeko dugun indar kolektiboan sakondu dezakegu. Zerbitzu publikoak gorrotoaren eta zatiketaren aurkako gure antidotorik onena dira.

Emakumeen duintasuna eta eskubideak ahultzen saiatzen diren muturreko diskurtsoen areagotzearen aurrean, bai eta migratzaileen edota LGTBI kolektiboaren aurkako gorrotoa elikatzen saiatzen direnen aurrean ere; garrantzitsua da berrestea berdintasunaren, justiziaren, elkartasunaren eta iraunkortasunaren printzipioak defendatzen ditugula, klase-sindikatu garen aldetik.

Hori dela eta, martxoaren 8an nazioarteko ekintza-batasuna berresten dugu, gure konpromiso sindikal eta feministaren bidez, honako hauetarako:

**1. Kalitatezko zerbitzu publikoak, bidezkoak eta genero-harreman desberdinak eraldatzen dituztenak defendatzea, gizarte justu eta parekide baten oinarri gisa.**

**2. Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria-mota guztiak salatzea, indarkeriarik gabeko bizitzak bermatzeko premiazko neurriak eskatuz.** Horiek estatuan zein nazioartean kudeatu behar dira, eta indarkeria matxisten aurka prebenitzeko, babesteko eta jarduteko baliabide nahikoak eman behar dira.

**3. Zaintzak, ordainduak edo ez, gure gizarteen garapenaren eragile gisa aitortzea,** familietan modu bidezkoan bana daitezen, kontziliazio-eskubideak bermatuz, eta sektore horri lotutako enpleguak bidezko lan-baldintzekin birbalioetsi daitezen.

**4. Emakumeei bidezko enplegu eta soldatetarako sarbidea bermatzea.** Egunero lan egiten dugu, lan-merkatu osoan, lanaren sexu-banaketa, segregazio horizontala eta bertikala, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena, aukeratu gabeko partzialtasuna eta behin-behinekotasuna eta emakumeei bizi-baldintza duinak izatea eragozten dien soldata-arrakala amai ditzagun.

**5. Aukera berberak eskatzea ibilbide profesionalak garatzeko berdintasun-planen eta negoziatio kolektiboaren bidez.** Emakumeok zerbitzu publikoetako langileen erdia baino gehiago osatzen dugu, eta hor garatu behar ditugu soldata-berdintasunerako, erabaki- eta zuzendaritza-postuetara iristeko estrategietarako eta erantzunkidetasunari lotutako eskubideak baliatzeko beharrezkoak diren tresnak.

**6. Bizitza politikoan, ekonomikoan eta publikoan erabakiak hartzeko maila guztietan emakume guztien parte-hartze osoa eta eraginkorra eta lidergo-aukera berdintasuna bultzatzea.** Diskriminazio anizkoitzaren faktoreak kontuan hartuta, hala nola jatorria, etnia, orientazioa, identitatea, desgaitasuna edo indarkeria matxistaren biktima izatea, besteak beste, inor atzean ez uzteko.

**7. Modu seguruan migratzeko eskubidea bermatzea.** Migrazioen Nazioarteko Erakundearen arabera, nazioarteko migratzaileen %48 emakumeak dira, eta gehienek beren herrialdeak uzten dituzte eskubide urraketak, gatazkak, hondamendi naturalak edo baliabide falta direla medio. Modu seguruan migratzeko eskubidea defendatzen dugu, bai eta migratzaileek jatorrizko zein helmugako gizarteetan egindako ekarpenak aitortzea ere.

**8. Mundu osoko neskek eta emakumeek berdintasunean eta bakean bizitzeko dituzten eskubideak defendatzea.** Gure konpromiso sindikalak ez du mugarik. Badakigu ahalegin kolektiboek emaitzak dituztela, historian zehar munduko hainbat lekutan izan diren aurrerapenetan ikusi den bezala. Guztion onerako lanean jarraitu behar dugu, giza eskubideak eta planetaren iraunkortasuna defendatuz.

